

I. Mundukide Lasterketa Solidarioa

2015/07/06

Beroa espero genuen eguna baina azkenean ez zen horrela izan I. Mundukide lasterketa solidarioan parte hartzea erabaki zuten 75 korrikalarien zorionerako. Urkuluko urtegian, Aretxabaletan, 7 kmko ibilbidean, lasterketa bat baino gehiago ekitaldia festa bilakatu zen.

Mondragon Unibertsitateak 4 talderekin hartu zuen parte; gizonetzkoak, emakumezkoak eta talde bi misto. Guztira, 12 korrikalari, 7 gizon eta 5 emakume.

Lehen edizioak jarduerari neurria hartzeko balio izan digu; datorren urtean lankide eta talde gehiagorekin bueltatuko gara. Gorde zure agendan! Prestatzeko urte guztia daukazu!

